

Herri-Administrazioetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Irizpideak

IV. Plangintzaldia (2008-2012)

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Hitzaurrea

Erabilera da euskararen etorkizunaren giltzarria

IV. Plangintzaldia abian

Eusko Jaurlaritzak egin du aldi honetako bere Erabilera plana

Eusko Jaurlaritzak beste herri-administrazioen esku jartzen ditu bere plana taxutzeko irizpideak



IV. Plangintzaldia (irizpideak)

Eragin-eremua: 86/1997 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritako esparrua:

- EAEko Administrazio Orokorra eta bere erakunde autonomoak.
- Herri kontuen Euskal Epaitegia.
- Lan Harreman Kontseilua.
- Foru- eta toki –administrazioak eta beren erakunde autonomoak.
- Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiak.
- Euskal Herriko Unibertsitateko administrazioan eta zerbitzuetako langileak.

Eragin-epea: 2008ko urtarrilaren 1etik 2012ko abenduaren 31ra

Xede nagusia: euskara ere Administrazioko lan hizkuntza “normala” izatea



III. Plangintzaldia (2003-2007) balorazio txostena

Gaur eguneko egoera, datu kuantitatiboei begiratuta (1)

- Ezagutza handia eta erabilera urria
- Euskararen presentzia nahiko bermatua:
 - Hizkuntza paisaia
 - Kanpo proiektzioa
 - Erakundearen kanpo harreman ofizial idatzikoetan
- Hedapen elebiduna: itzulpenari esker, hein handi batean

Azterketa kualitatiboa eta IV. Plangintzaldira begirako lan ildoak



III. Plangintzaldia (2003-2007) balorazio txostena

Gaur eguneko egoera, datu kuantitatiboei begiratuta (2)

- Herri-administrazioen eta langileen ahaleginari esker, prest gaude euskaraz lan egiteko, eta, ez hori bakarrik, gero eta gehiago egingo dugu.
- Datu esanguratsu batzuk:
 - Herri-administrazioetako langileak oro har: 33.889 (udalak, foru aldundiak eta Administrazio orokorra, beste batzuen artean...).
 - Langile horietatik 15.900 lanpostuk du ezarria derrigortasun data (%46,92).
 - Derrigortasun data izanik, dagokien hizkuntza gaitasuna egiaztatu dute 8.834 langilek.
 - Derrigortasun data izan gabe ere, 3.209 langilek dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatua dute.



III. Plangintzaldia (2003-2007) balorazio txostena

Gaur eguneko egoera, datu kuantitatiboei begiratuta (3)

➤ Beste datu zenbait:

- 12.043 langilek hizkuntza gaitasuna egiaztatua du derrigortasun data izan edo ez izan (%35,54).
- Herri-administrazioetako langileen erdiak baino gehiagok egiaztatu du hizkuntza eskakizunen bat (%57,43).
- Egiaztatze datuak alderatuz, azken 12 urtetan hauxe izan da bilakaera:
 - %130ean egin du gora egiaztatze mailak, langileriak, berriz, %29.
 - 1995ean 3.829koa zen egiaztatzea eta 2007an 8.834koa.



III. Plangintzaldia (2003-2007) balorazio txostena

Gaur eguneko egoera, datu kuantitatiboei begiratuta (4)

Ondorioak:

- Herri-administrazioetako langileen %57,43k hizkuntza eskakizunen bat egiaztatzen du.
- Herri-administrazioetan 12.043 langilek badu gaitasuna euskara lan hizkuntza moduan erabiltzeko.
- Euskararen ezagutza beharrezkoa da erabilera ziurtatzeko, baina hori baino gehiago behar da.
- Badira beste aldagi batzuk erabileran eragina dutenak: ohitura eza, ziurtasun falta, egoera soziolinguistikoa... Erabilera sustatzeko aukerak bermatu behar dira.
- Hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak bitarteko dira euskararen erabilera bermatzeko.
- Herri-administrazioek benetako urratsak eman behar dituzte euskara lan hizkuntza izan dadin, hori bai, malgutasunez, progresibitatea zainduz eta herritarren hizkuntza eskubideak babestuz.



IV. Plangintzaldia (irizpideak)

Oinarri nagusiak

- Herritarren hizkuntza eskubideak bermatu: bereziki lehen atentzioa euskaraz emateari dagokionean
- Erabilera planetan langile gehiagok hartuko luke parte: batzuek hala dagokielako, eta beste batzuek, borondatez.

Horiek guztiek gutxienez funtzio komunikatiboren *bat* (batzuk) egin beharko lukete euskaraz:

- Malgutasunez: erritmoa eta helburuak administrazio bakoitzak erabakiz
- Derrigortasun datak eta hizkuntza eskakizunak bitarteko, euskara erabilerarekin lotzeko



IV. Plangintzaldia (irizpideak)

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako irizpideak

- Araubide orokorra, helmuga
- Berrikuntzak
 - Administrazioaren jarrera aktiboa
 - Sortze lanaren sustapena, itzuli gabe
 - Kalitatezko komunikazioak / testu zuzenak, argiak, jatorrak eta egokiak
 - Idazketa elebiduna, korredakzioa



IV. Plangintzaldia (irizpideak)

Inoiz baino langile gehiago erabilera planetan

Eusko Jaurlaritzako irizpideak aintzat hartzen badira, erabilera normalizatzeko planean langile hauek hartuko lukete parte, lanpostuen jabe izan edo ez izan: **derrigortasun data ezarria izanik, dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatu dutenek, edozein dela ere beren atalaren izaera** (2008ko urtarrileko datuen arabera: 8.834).

Horietaz gain, **derrigortasun data ezarri gabe izanik, dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatu dutenei gonbita egin ahal izango diete** herri-administrazioek euren borondatez erabilera planean sartzeko (2008ko urtarrileko datuen arabera: 3.209).

Gainera, salbuespen gisa, zenbait lanposturen lan-jardunak estrategikotzat jotzen badira, erakundeak gonbita egin ahal izango die derrigortasun data izanik dagokien hizkuntza eskakizuna baino bat baxuagoa egiaztatu dutenei (905).

Guztira, parte har dezaketenak: 12.948 (%38,20)



IV. Plangintzaldia (irizpideak)

Erabilera planetako lehentasun komunikatiboak



Zer egingo da
euskaraz?

“Azterketa komunikatiboa”

1. Erabilera planetako langileen lan-jardun nagusiak
2. Lan-jardun nagusi horietako ahozko eta idatzizko komunikazio esanguratsuenak

Komunikazio horiek lehenesteko irizpideak

- Herritarrekiko harremanak
- Euskara lehenetsi dutenekiko komunikazioak
- Administrazio barruan eta adm. arteko harreman-sarea
- Eragin handiko komunikazioak
- Administrazioak egoki irizten dituenak



IV. Plangintzaldia (irizpideak)

Berariazko prestakuntza, bi bide

- Ikastaroak: hautatutako lan-jardunak euskaraz egiten ikasteko
- Trebakuntza saioak: ikastaroan ikasitakoa lanean erabiltzeko

Epe mugatua:

- Hasi: langileak komunikazioa lantzeko laguntza behar duenean
- Bukatu: komunikazio hori euskaraz egiteko gauza denean

Metodologia: erraza eta malgua

- Helburuak
- Adierazleak
- Estrategiak
- Ekintza plana



IV. Plangintzaldia (irizpideak)

Antolakuntza egiturak:

- Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordea
- Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorra (administrazio handietan)

Partaideak:

- Planak eragindako langileen ordezkaria/k
- Planak eragindako langileen arduraduna/k
- Normalkuntza teknikaria/k
- Euskararen ardura daraman kargu politikoa/k

Euskararen erabileraren jarraipena

- Urteko balorazio txostena
- IV. Plangintzaldiaren tarteko eta bukaerako balorazioa




IV. Plangintzaldia (irizpideak)

Ondorioak:

- IV. Plangintzaldiaren helburua da ezagutzatik haratago joan eta euskara erabiltzea, betiere, malgutasunez baina etengabe.
- Hizkuntza ofizial bien arteko oreka lortzera jo behar da, egoera txarragoan dagoenaren erabilera indartuz.
- Neurriak hartu beharra dago herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko
- Helburua ez da euskara inposatzea, baizik eta euskara ere lan hizkuntza bezala erabili izatea, gaztelania bezala.
- Gauza guztien gainetik, beharrezkoa da herritarrek hizkuntza hautatzeko duten eskubidea errespetatzea.
- Erabileraren normalizazioa malgutasunez egin behar da, aurrera begira eta modu aktiboan.
- Asmoa herri-administrazioei laguntzea da, haiekin batera euskararen normalizazioan aurrera egitea, eta ez irizpide hauek haiei ezartzea.





Eskerrik asko!!!

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saillburuordetza



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística